

**OHIKO OSOKO BILKURA 03/12**

**UDALAK 2012ko OTSAILAREN 28AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

**BATZORDEKIDEAK:**

**ALKATEA:**

Luis Intxauspe Arozamena jn.

**ALKATEORDEAK:**

Gloria Mendinueta Yeregi and.

Idurre Conde Santa Cruz and.

Asier San Emeterio Otegui jn.

**ZINEGOTZIAK:**

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.

Aitor Miner Aginaga jn.

Iker Goenaga Gubia jn.

Beñat Amenabar Perurena jn.

Nahiara Sanchiz Arregui and.

Estefanía Morcillo Cerdan and.

Jose Ramón Chica Ramirez jn.

Jose Pérez Dominguez jn.

Andoni Amonarraiz Gómez jn.

Iñaki Barrio Sagastume jn.

2012ko otsailaren 28an ohiko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Pello Odriozola Zubizarreta idazkariordea.

**KONTU HARTZAILEA:**

Antxon Garcia Nadal jn.

**IDAZKARIORDEA:**

Pello Odriozola Zubizarreta jn.

**1.- AKTA ONARTZEA: 2011-10-26, 2011-12-27, 2012-01-27 ETA 2012-01-31.** - 2011ko urriaren 26ean, 2011ko abenduaren 27an, 2012ko urtarrilaren 27an eta 2012ko urtarrilaren 31ean egindako bileren aktak onartu dira.

Andoni Amonarraiz:

2012/01/27ko aktarekiko abstenitu egingo gara, ez bait ginen egon, besteekin ados gaude.

**2.- 2012KO URTARRILAREN 28TIK 2012KO OTSAILAREN 23RA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.** - 2012ko urtarrilaren 28tik 2012ko otsailaren 23ra bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da.

- \* Alkate and.
- \* Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.
- \* Euskara, Kultura, Turismo eta Presoen delegatu and.
- \* Hezkuntza, Politika Soziala eta Hernani 2020ko delegatu and.

**3.- HERNANIKO UDALEKO AURREKONTUAREN 21/2011 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA (KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKOA).** - Hernaniko Udal Aurrekontuko kredituen aldaketarako 21/2011 espedientearen (kreditu gehigarrien bidezkoa) berri eman da. Espediente hori Alkatetzak 2011ko abenduaren 27an hartutako ebazpen bidez onartu zen eta 180.821 eurokoa da.

**4.- HERNANIKO UDALAREN AURREKONTUAREN 20/2011 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETAKO ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA (KREDITUEN TRANSFERENTZIA BIDEZKOA).** - Alkatetzak 2011ko abenduaren 27an emandako ebazpenaren berri eman da. Ebazpen horren bidez 20/2011 zenbakiko kreditu aldaketako espedientea onartu zen, Hernaniko Udalaren 2011ko aurrekontuaren partiden arteko transferentzia bidezkoa. Kopurua: 268.035,42 euro.

**5.- 815/2011 ZENBAKIKO EPAIAREN BERRI EMATEA ETA HORREN AURKAKO KASAZIO-ERREKURTSOA JARTZEA. EPAI HORI ARKEMA QUÍMICA SAK JARRITAKO 330/10 ERREKURTSOARI BURUZKOA DA, HOTS, OSOKO BILKURAK 2009KO ABENDUAREN 17AN HARTUKO ERABAKIAREN AURKAKOA, ZEINEN BIDEZ LHI-31.2 –EPELE- ZATIKO PLANAREN ALDAKETA BEHIN BETIKO ONARTU BAITZEN.** - 2002ko ekainaren 30ean onartu zen behin betiko LHI-31.2 sektorea garatzen zuen Plan Partziala, Sprilur SAK eta Hernaniko Udalak sustatua. Gero Exekuzio Unitateak mugatzeko espedientea izapidetu zen eta sektorea bitan banatu zen. Sektore honen 1. exekuzio unitatea kudeatua dago eta urbanizazio eta eraikuntza lanak eginak daude. Gaur egun egiteko dagoena 2. exekuzio unitatea da.

Electroquímica de Hernani SA enpresak bere instalazioak handitzeko lursail bat eskuratu nahi zuela eta (salerosketako hitzemandako kontratu bidez formalizatuz), Sprilur SAekin zatiko planeamenduaren aldaketa bat sustatu zen, 2. exekuzio unitatearen eta bere eremuan sartuta dauden bi industri lursailen (2 eta 3) barruko bide sistemaren berrantolatetari bakarrik eragiten diona.

Aldaketa hau jendaurrean ikusgai egon zen bitartean Arkema Química SAK alegazio idazki bat aurkeztu zuen, udalbatzari aldaketa horren behin betiko onarpena uka zezala eskatzeko. Eskaera hori arrazoitzeko honako hauek adierazi zituen:

a) Zatik planaren aldaketak sektorearen hego aldean jartzekoa zen ibilgailuentzako aparkalekua ez jartzea dakar. Proposatzen dute kokapen horretan industri lursail eraikigarriak antolatzea, horrela ez baita hausten Produktu Kimikoak biltegitatzeko araudiak eta araudiak horren instrukzio tekniko osagarriek diotena, alegia, arau horiek galarazi egiten dute ezer eraiki dadila binilo kloruro monomeroa gordeta dagoen instalazioetatik 90 m-ko erradioko tartean eta, kasu honetan, Arkemaren biltegia proposatzen den eraikin berritik 90 m baino gutxiagora egongo litzateke.

b) Proposatzen den antolamenduarekin Seveso araudia hausten da.

Udalbatzak 2009ko irailaren 17an egindako osoko bilkuran Arkemak aurkeztutako alegazioak ezetsi zituen eta mintzagai dugun zatiko planaren aldaketari behin betiko onarpena eman zion.

Ebazpen horren aurka Arkema Química SA enpresak administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri zuen (330/10-2 z.). Errekurtso hori Euskadiko Autonomia Erkidegoko Justizi Auzitegian izapidetu da eta joan den abenduaren 14an eman zen horri buruzko ebazpena (815/2011 zk.) Hona hemen epaiaren azalpen zatiak dioena:

“Que estimando el recurso contencioso interpuesto por la representación de Arkema Química SA debemos declarar nulo el acuerdo de 17 de diciembre de 2009 del Ayuntamiento de Hernani por el que se aprueba de forma definitiva la Modificación del Plan Parcial del Sector SUE 31.2 (Epele), sin que proceda expresa imposición de las costas procesales causadas.”.

Aztertu da Hirigintza departamentuko letratuak egindako txostena.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2012ko otsailaren 13an emandako irizpena.

Horiek horrela, EAJ/PNVren abstentzioarekin hau erabaki da aho batez:

- 1.- Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzitarako Sailean kasazio-errekurtsoa jartzea Auzitegi Nagusiak emandako 815/2011 epaiaren aurka.

**6.- TXANTXILLAKO ETXEBIZITZA HITZARTUEN HAINBAT ESLEIPENDUNEN ALDAKETA EDO OSAKETA PROPOSAMENA ONARTZEA.** - 2008ko otsailaren 28an udalak Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioetako 5.1. arearen (Txantxilla) hirigintza hitzarmenaren aldaketa onartu zuen. Hitzarmen horrek hitzartu gisa kalifikatzen diren 33 etxebizitzaren araubide juridikoa arautzen du eta, halaber, etxebizitza horien esleipendunen betebeharrak zehazten, nahiz eta sustatzaileak esleipen librearekin ere onartzen duen, udalari egiaztaketa egiteko bigarren mailako zeregina gordeta.

2009ko martxoaren 26ko osoko bilkuran sustatzaileak proposatutako esleipendunen zerrenda onartu zuen udalak, betekizunak betetzen zituztela egiaztatu ondoren. Behean adierazita datozen aldaketak egin eta gero, honako hauek jarraitzen dute esleipendun gisa:

- 1.- Ainara ORTEGA BARRENECHEA
- 2.- Maddi GARMENDIA BARRENETXEA
- 3.- Iera LOINAZ URIA
- 4.- Miren Garbiñe ZABALA GOIBURU
- 5.- Oier MENDIZABAL HUITZI
- 6.- Luis M<sup>a</sup> GORROCHATEGUI CIGARAN
- 7.- Eider APAOLAZA LARREA
- 8.- Iratxe APAOLAZA CLEMENTE
- 9.- Juan José SANZ MARCOS
- 10.- Amaia ORMAZABAL RECONDO
- 11.- M<sup>a</sup> Antonia ZUMETA GOROSTEGUI
- 12.- Xabier ESPARZA ZUBELDIA
- 13.- Gorka ZUBELDIA PERURENA

Bestalde, 2009ko irailaren 24an egindako osoko bilkuran beste pertsona hauek gaineratu ziren esleipendunen zerrendan:

14.- Xabier ESTEBAN SEGURA

15.- Aritz EZEIZA ZABALA

Eta 2011ko irailaren 27an egindako osoko bilkuran, berriz, beste hau:

16.- Imanol Gorrotxategi Rodríguez

Azkenik, 2012ko urtarrilaren 31n egindako osoko bilkuran 2009ko martxoan egindako hainbat esleipen zuzendu eta osatu ziren:

17.- Oscar Esteban García eta Ainhoa Montenegro Arrondo

18.- Maite Apaolaza Aramendi eta Iokin Etxeberria Alberro

19.- Iñaki Barrenechea Lerchundi eta Beatriz Irastorza Otegui

20.- Nerea Sanchiz Arregui eta Andoni Martín Arnés Arteaga.

21.- Asier Garayar Holgado eta Maialen Murguiondo Jáuregui

2012ko urtarrilaren 27an sustatzaileak eskatu zuen esleipen batzuk osa zitezela. Hauek proposatu zituen:

22.- Igor Barrenechea Artola eta Ixone Urcelay Bengoetxea

23.- Nagore Barrenechea Artola eta Daniel Narvate Apecechea.

24.- María Sanz Amasaene eta Antón Aizpurua Pequeño.

25.- María Teresa Iturbe Iturzaeta y Angel Picabea

26.- Urko Apaolaza Avila eta Ainara Gorostidi Barandiaran.

27.- Iker Apaolaza Avila eta Esther Navajas Legarra

28.- Nerea Uria Gigorro eta Aitor Arguiñarena Olano

29.- Maddi Ocariz Eizaguirre eta Aritz Santano Izaguirre

30.- Jon Imaz Gorrochategui eta Josune Irigoyen Iruretagoiena.

31.- Inhar Olano Iradi eta Eider Zubelzu Loyarte.

32.- Aitor Gorrotxategi Arozena eta Eva Conde Santa Cruz

33.- José Manuel Errazquin Beldarrain eta María Milagros Múgika Agirretxe.

Zerrenda honetan aipatzen diren titular guztietatik lehenengo kideak esleipendun izateko baimenduta zeuden jadanik 2009ko martxoaren 26ko osoko bilkuraz geroztik. Proposamen berriak egiten duena da bakoitzari esleipendun titular bat gehiago gaineratu. Horretarako esleipendun berri horiei dagokien dokumentazioa erantsi da, batena izan ezik, María Milagros Múgika Agirretxerena alegia (33), horren ondorioz ezin baita baimendu. Eutsi egiten zaio, beraz, 2009ko martxoaren 26ko osoko bilkuran José Manuel Errazquin Beldarrainen alde baimendutako esleipenari.

Bestalde, Aitor Gorrotxategiren alde egindako esleipena 2004ko abenduaren 27ko hitzarmenean jasota zetorren salbuespen baten babesean egin zen. Salbuespen horren arabera, jabe pribatuei lehen esandako baldintzak bete gabe etxebizitza tasatua esleitu ahal izango zaie baldin eta aktuzio unitatean dagoen lurren garai bateko jabeak transmititzen bazaie. Horregatik 2009ko martxoaren 26an egindako osoko bilkuran baldintzak betetzetik salbuetsi zen.

Proposatutako gainerako esleipendun berriek betetzen dituzte eskatutako baldintzak.

Aztertu da Hirigintza departamentuko letratuak egindako txostena.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2012ko otsailaren 13an emandako irizpena.

Esandakoa kontuan hartuta, Alkate jaunak irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

- \* Aldeko botoak: 9 (BILDU).
- \* Kontrako botoak: 1 (H1!).
- \* Abstentzioak: 4 (1 EAJ-PNV, 3 EUSKAL SOZIALISTAK).

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

1.- Honako pertsona hauei esleitzea onartzea:

- 22.- Igor Barrenechea Artola eta Ixone Urcelay Bengoetxea
- 23.- Nagore Barrenechea Artola eta Daniel Narvate Apecechea.
- 24.- María Sanz Amasaene eta Antón Aizpurua Pequeño.
- 25.- María Teresa Iturbe Iturzaeta eta Angel Picabea
- 26.- Urko Apaolaza Avila eta Ainara Gorostidi Barandiaran.
- 27.- Iker Apaolaza Avila eta Esther Navajas Legarra
- 28.- Nerea Uria Gigorro eta Aitor Arguiñarena Olano
- 29.- Maddi Ocariz Eizaguirre eta Aritz Santano Izaguirre
- 30.- Jon Imaz Gorrochategui eta Josune Irigoyen Iruretagoiena.
- 31.- Inhar Olano Iradi eta Eider Zubelzu Loyarte.
- 32.- Aitor GORROTXATEGI AROZENA eta Eva Conde Santa Cruz

2.- María Milagros Mugika Agirretxeren inguruko esleipen proposamena ezestea, eta 2009ko martxoaren 26ko osoko bilkuran pertsona honen alde egindako esleipenak onartzea:

33.- José Manuel Errazquin Beldarrain.

**7.- 2012. URTEKO AURREKONTUA.** - Udalbatzak 2012ko urtarrilaren 31n egindako osoko bilkuran 2012 ekitaldirako aurrekontu orokorra hastapenez onartu zuen.

Aurrekontu orokor hori jendaurrean ikusgai dago 2012ko otsailaren 21era arte; iragarkia GAOn argitaratu zen (2012ko otsailak 3, 23zk.) eta udaletxeko iragarki-oholean jarrita dago.

Aurrekontu horretan langileen soldaten igoera dago jaso, %2,4ko igoera 2011ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko.

Langileen ordainketa horiek 20/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 2. artikulua arautzen duenari egokitu behar zaizkio

Aztertu da Ogasun eta Ondare Batzordea-Kontuatarako Batzorde bereziak 2012ko urtarrilaren 24ean emandako irizpena.

Luis Intxauspe:

Urtarrileko plenoan aurrekontuek behin behineko onarpena izan zuten, baina hor bazegoen partida bat pertsonal gastuetan aurreikusten genuena, KPlaren igoera; berez ezinezkoa da, gaur egun Rajoik onartutako dekretuaren arabera, orduan moldaketa bat egin dugu eta planteatu dugu kopuru hori beste kapitulu batetan, beste kontzeptu batetan gordetzea, gure borondatea badelako legez posible baldin bada igoera hori aurreikustea. Kopurua bigarren kapituluan jaso da, moldaketa txiki hori eginik aurrekontuen behin betiko onarpena planteatzen da.

Jose Ramón Chica:

Gure aldetik, aldaketa horretaz gain, pertsonaleko teknikariak zein kontuhartzailearen txostenetan ageri zen bete behar zela nahitaez, aldaketa bakarra denez eta gure emendakinean planteatzen genituen gaiak ez direnez jasotzen, gure botoa aurkakoa izango da.

Esandakoa kontuan hartuta, Alkate jaunak irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

- \* Aldeko botoak: 9 (BILDU).
- \* Kontrako botoak: 5 (1 EAJ-PNV, 3 EUSKAL SOZIALISTAK, 1 H1!).
- \* Abstentzioak: Bat ere ez.

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

Hastapenez onartutako aurrekontu orokorrean honako aldaketa hauek egin ditzala:

- 1.- Udal Aurrekontuko Gastuen Egoerako 1. Kapituluak "Pertsonal Gastuak" murriztea. 7.959.107 eurotik 7.855.234 eurora igaroko da (-103.873 euro).
- 2.- Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuaren Aurrekontuko Gastuen Egoerako 1. Kapituluak "Pertsonal Gastuak" murriztea. 3.941.829 eurotik 3.857.465 eurora igaroko da (-84.364 euro).
- 3.- Udal Aurrekontuaren Gastuen Egoerako 2. Kapituluaren "Ondasun Arrunten eta zerbitzuen gastuak" 1.0100.226.99.191.00 "Kreditu Globala" partidaren kontsignazioa 188.237 euro handitzea. Kopuru hori pertsonal gastuetan aldaketarik gertatuz gero haiei aurre egiteko gordeko da.
- 5.- Ondorioz, Hernaniko Udalaren 2012 urterako Aurrekontua doitzea, eta aldatu beharreko dokumentuetan egin beharreko aldaketak egitea, baita Lanpostuen Zerrendan ere.
- 6.- Hastapenez hartutako erabakiarekiko funtsez-ko aldaketa bat denez, beste erabaki bat hartzea, hau:

1.- Hernaniko Udalaren 2012ko. urterako Aurrekontu Orokorra onartzea, kapitulukako laburpen honen arabera

**UDAL SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTU BATERATUA**

2012ko Aurrekontua

**SARREREN AURREKONTU BATERATUA**

KAP	IZENA	UDALA	ONGINTZA	EREÑOTZU T.E.T.	BATERATU- TAKO GUZTIRA
1	ZUZENEKO ZERGAK	5.574.735			5.574.735
2	ZEHARKAKO ZERGAK	1.201.234			1.201.234
3	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	5.469.399	1.688.799		7.158.198
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	11.377.515	5.888.703 (- 2.302.872)	267.219 (- 267.219)	14.963.346
5	ONDARE SARRERAK	20.421	1.027		21.448
6	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZTATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	7.000			7.000
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	8.819	81.750 (- 81.750)	42.167 (- 42.167)	8.819
8	AKTIBO FINANTZARIOAK	7	1		8
9	PASIBO FINANTZATIOAK	560.000			560.000
	<b>G U Z T I R A</b>	24.219.130	7.660.280 (- 2.384.622)	309.386 (- 309.386)	29.494.788

**GASTUEN AURREKONTU BATERATUA**

KAP	IZENA	UDALA	ONGINTZA	EREÑOTZU T.E.T.	BATERATU- TAKO
-----	-------	-------	----------	--------------------	-------------------

					GUZTIRA
1	PERTSONAL GASTUAK	7.855.234	3.857.465	50.018	11.762.717
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	10.166.673	3.525.578	217.201	13.909.452
3	FINANTZA GASTUAK	59.703			59.703
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.950.199 (-2.302.872) (-267.219)	195.486		1.575.594
6	INBERTSIO ERREALAK	608.356	81.750	42.167	732.273
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	123.917 (-81.750) (-42.167)			
8	FINANTZA AKTIBOAK	7	1		8
9	FINANTZA PASIBOAK	1.455.041			1.455.041
	<b>G U Z T I R A</b>	24.219.130 (-2.778.587)	7.744.644	309.386	29.494.788

- 2.- 2012ko Aurrekontua gauzatzeko araua onartzea.
- 3.- 2012ko Dirulaguntzak emateko araudia onartzea.
- 4.- Hernaniko Udalaren 2012. urterako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartzea.
- 5.- "Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatua"ren 2012. urterako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartzea.
- 6.- Ereñotzuko Toki Entitate Txikiaren 2012. urterako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartzea.
- 7.- Espedientea jendaurrean ikusgai jartzea, hamabost lanegunez, nahi dutenek azter dezaten eta Udal Batzarrari erreklamazioak aurkez diezazkieten. Aipatutako epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsizat Joao da; bestela, Udal Batzarrak hilabeteko epea izango du haiek ebazteko.



**8.- HONDAKINEI BURUZKO UDAL ORDENAN-TZARENTZAKO OSAGARRIA, LURZORU KUTSATUEN ETA HONDAKINEN INGURUKO UZTAILAREN 28KO 22/2011 LEGE BERRIA INDARREAN SARTZEAREN ONDORIOZKOA.** - Alkatetzak 2011ko azaroaren 9an emandako dekretu baten bidez udal honek Lurzoru kutsatuen eta hondakinen inguruko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 12.5.c.2 artikulua ematen duen aukera baliatu du eta, hortaz, merkataritzako hondakinen ekoizle eta edukitzaile guztiak udal honek eta SMMk gaur egun ematen duen hondakinen kudeaketa sistema publikoan sartzera derrigortu ditu. Erabaki hori hartzeko arrazoiak, lege horrek erabakia arrazoi dadila eskatzen baitu, ingurumen teknikariak egindako txotenean datoz jasota.

Legez nahitaezkoa ez den arren (Hondakinen lege berriak ez due exijitzen, baizik eta udal ebazpen arrazoitu bat eskatzen du) badirudi bidezkoa dela oraingo ordenantza osatzea (ez da beharrezkoa aldatzea ere, merkataritzako hondakinak entregatu beharra oraingo ordenantzan dagoeneko jasota baitago, 2011ko Legearen aurretik indarrean zegoen legeriaren arabera egina zegoelako). Hona hemen sartu beharko litzatekeen artikulua osagarria:

*7 bis. Artikulua:*

*Hernaniko udalerrian merkataritzako hondakin ez arriskutsuen eta industrietan sortutako hondakin domestikoen kudeaketa ordenantza honetan edo inoiz honen ordean onartzen den araudian adierazitako moduan jarritako sistema publikoaren barruan sartuta geratuko dira derrigor, eta honelako hondakinak dituzten hasierako ekoizle edo edukitzaileek ezingo dute Lurzoru kutsatuen eta hondakinen inguruko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 17. artikulua 3. atalean jasotako aukera baliatu.*

Kontuan hartu dira Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua eta Toki Araubidearen alorrean indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege-Dekretuaren 55-59 artikulua.

Aztertu da Zerbitzu Publiko eta Merkataritza Batzordeak 2012ko otsailaren 22an emandako irizpena.

Esandakoa kontuan hartuta, Alkate jaunak irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

- \* Aldeko botoak: 9 (BILDU).
- \* Kontrako botoak: Bat ere ez.
- \* Abstentzioak: 5 (1 EAJ-PNV, 3 EUSKAL SOZIALISTAK, 1 H1!).

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

- 1.- Hastapenez onartzea ordenantzan hondakinen kudeaketako sistema publikoaren kudeaketari buruzkoa den 7. bis artikulua sartzea eta zuzentzea.
- 2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, 30 egunez, interesa duen edonork beharrezko ikusten dituen erreklamazio, alegazio eta oharra egin ditzan.
- 3.- Ohartaraztea epe barruan erreklamazio, alegazio edo oharrik egiten ez bada, behin betiko onartuta dagoela ulertuko dela, eta GAOn osorik argitaratuko dela.

**9.- ANIMALIAK EDUKITZEA ETA BABESTEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA.** - 2011ko apirilaren 3an behin betikoz onartu zen "Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren" testu osoa, 2011ko apirilaren 7ko GAO'n argitaratu zen. Aipatutako testuan, zenbait artikulua aldatu ziren, dagokion txakurren erregistroan inskribatu ahal izateko animaliei ADN frogak egitea arautuz, Ordenantzaren ez betetzeen aurrean.

Udaleko egungo gobernu taldeak ikusita indarrean dagoen araudiak sortzen dituen arazoak, al baitari, txakurren jabe eta hainbat agente sozialekin bilerak egin ditu eta ondorioz, Zerbitzu Departamentuak 2011ko apirilaren 3an Udal Batzak behin betikoz onartu zuen "Animalien edukitzea eta babestea arautzen duen Ordenantza"ren aldaketa proposatu du.

Olatz Urrutibeaskoa, Ingurumeneko Teknikariak, 2012ko otsailaren 16an eginiko txostenaren bidez, "Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren" aldaketa proposamena egin du egun indarrean dagoen araudiari egokitzeko.

Kontratazio eta Ondare teknikariaren txostena aztertu da,

Aztertu da Zerbitzu Publiko eta Merkataritza Batzordeak 2012ko otsailaren 22an emandako irizpena.

Andoni Amonarraiz:

Daukagun proposamena batzordetik pasa zen baina ez zuen itzulita egoteko denborarik eman, ez genuen ekarpenik egiterik izan proposamenaren barrena iristerik ez genuelako lortzen. Ekarpenak egitea gustatuko litzaziguke.

Luis Intxauspe:

Animalien ordenantza moldaketa bat egin zen eta ADNari zegokion gaia edo puntua edo trataera gehitu egin zen; bere garaian guk planteatu genuen gai horrek eztabaida handia sortu zuenez, herritarrekin hitzegin eta eztabaidatu ondoren saiatuko ginela adostasun batetara iristen. Prozesu partehartzaile bat irekiko genuela, bilera batzuz egingo genituela herritarrekin eta zenbait bilera egin ditugu gaia aztertzeko, proposamenak jasotzeko, eztabaidatzeko eta adosteko; hau da adostu dugun testua eta hau da guk plenora dakarkigun testua.

Andoni Amonarraiz:

Plenoan gobernu taldeak aurkezten duen testuari hobekuntza eta ekarpenak egiteko zinegotzien eskumenaren baitan, ondorengo gaiak proposatzen ditut:

5. puntuan, III Titulua, IV Kapituluak, 10. artikuluan, mikrotxipak lepoaren ezker aldean joan behar duela zehazten da. Eskuinaldean badarama, zigorra ezarriko al da?

Jose Ramonek dioen moduan, legeak ezartzen badu ezker aldean jarri behar dela, proposamen hau bertan behera gelditzen da legeak markatzen duelako, baina legea irigarria dela iruditzen zait.

10. puntuan, III Titulua, VI Kapituluak, 25. artikuluan, e) puntuan, "baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliak" katalogaturik dauden txakurrek ezin dute inolara ere parte hartu txakur erakusketan, lehiaketan edo bestelako gertakizunetan Hernanin.

Kistiñe Lujanbio:

Hernaniko Udalak bere eremua arautu beharko du ez.

Luis Intxauspe:

Hori da, guk gure arautegian gure eremu geografikoa arautzen dugu.

Andoni Amonarraiz:

11. puntuan, III Titulua, VI Kapitula, 30. artikulua. Bigarren eta hirugarren parrafoetan berdina esaten da, soilik bietako batetan jarri beharko litzatekeela uste dut. Txakur gorozkiak bide eta plaza publikoetan, haur parkeetan, lorategietan, eta oro har, apaindurako eta/edo pertsonen pasadizorako den edozein lekutan uztea debekatua dagoela dio, eta gero, hurrengo parrafoan txakurrak gorotzak espaloian edo oinezkoen igarobideetan uzten badu, txakur jabeak edo hartaz baliatzen ari dena izango da txakurrak sortzen dituen kalte, galera eta arazoan erantzule, etabar, etabar. Suposatzen dut ez soilik espaloian edo oinezkoen igarobideetan, izango dira baita ere haur parkeetan, lorategietan eta orokorrean. Proposatuko nuke aldaketa honen testuak adierazi dezala debekatua dagoela txakur gorozkiak uztea debekatua dagoela bide eta plaza publikoetan, haur parkeetan, lorategietan, eta oro har, apaindurako eta/edo pertsonen pasadizorako den edozein lekutan, txakur jabea edo hartaz baliatzen ari dena izango delarik txakurrak sortzen dituen kalte, galera eta arazoan erantzule, etabar, etabar. Bi parrafoak bateratzea litzateke logikoena, dirudielako espaloi edo oinezkoen igarobideetan utzitako txakur gorozkiengatik izango direla soilik erantzule.

Andoni Amonarraiz:

Udalerrian txakurrak solte ibiltzea ez da zigortzen. Ez dakit ez ote genukeen arau hauste arin moduan jaso behar, aipamen berezia egiten da arriskutsu izan daitezkeen animalia bezala katalogatutako txakurrei dagokionez. Animalien tratu txarrekin lotura duen oro oso larri moduan jarriko nituzke. Ez dago eskubiderik ondoan eduki nahi ditugun animaliei tratu txarrik emateko. Baldintza berezi batzuetan eduki beharreko animaliak edo animalia arriskugarri bat solte lagatzea edo bete ihesa edo galbidea ekiditeko beharrezko neurriak hartu ez izana larri bezala jartzen dugu, ni oso larri moduan jartzearen aldekoa naiz.

14. puntuan, V. Titulua, XIV. Kapitula, 6.1 artikuluan, zigor oso larrien aipamena faltako litzateke.

Estefania Morcillo:

Andoni egiten ari den proposamenak ikusita, agian komenigarri litzateke ekarpenak egokiak diren edo ez aztertze gaia mahai gainean uztea.

Luis Intxauspe:

Bost minutuko errezesoa bat egingo dugu.

Lehenengoa, mikrotxiparen gaia horrela da eta horrela da. Bigarrena, gure konpetentzia Hernanikoa arautzea da. Hirugarrena errata bat da, zuzenduko da. Laugarrena, bi parrafo horiek bateratzea, ados bateratzearekin. Hurrengoa, txakurrak libre ibiltzea ez dela inon jasotzen, horren arrazoia da txakurrak libre ibiltzea legeak debekatzen du, ez Hernaniko ordenantzak. Arau hauste larrietan animalien tratu txarra eta animaliak galtzea oso larritzat planteatzea; horrelako gauza batzuetan aritu

gara prozesu horretan jendearekin eztabaidatzen, legeak horrela planteatzen du, eta hori da guk adostu duguna, orduan, guk printzipioz hemen planteatuko duguna da herritarrekin egindako bileretan adostutako gauzak eta horrela mantentzea planteatzen dugu, larri bezala, ez oso larri bezala. Eta azkena, santzioena, artikulatua begiratu ezker, planteatzen du santzio arina alkateak erabakitzen duela, larria plenoak eta oso larria berez aldundiaren kompetentzia da. Ordenantzaren aurreko parrafoan jaso dago.

Planteatzen duguna da, zuk proposatutako bi parrafo horiek bateratzea, espazio publikoen ikuspegi hori zabala izatea, hori moldatuko genuke, baina bestela bere horretan planteatzea.

Andoni Amonarraiz:

Aldeko botoa emango dut, ordenantzaren aldaketak zuzenak dira, soilik ekarpen batzu egitea zen.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

1.- 2011ko apirilaren 3an Udal batzak behin betikoz onartutako "Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Ordenantza"n ADN frogari buruzko aipamen guztiak kentzea eta berriro ere 2004ko irailaren 9an udal honetako Osoko Bilkurak onartutako "Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Ordenantza"ri hasierako onarpena ematea eta Ordenantzaren zenbait atal egungo araudiari egokitzea, modu honetan idatzita geldituko litzateke:

1.- Ordenantzaren azalpen testuaren laugarren idatz-zatia kentzea:

*"Hau da ordenantza honen asmoa: mota guztietako animalien edukitzea arautzea, bai konpainiakoena bai konpainiakoak ez direnena, animalien eta pertsonen arteko elkarbizitza bateratzeko helburuz, ingurunearen osasunerako eta pertsona nahiz ondasunen lasaitasun, osasun eta segurtasunerako izan daitezkeen arriskuak saihestuz.*

*Halaber, animaliek tratuaren, higiearen, elikaduraren, babesaren, exhibizioaren, garraioaren eta identifikazioaren ikuspuntutik jaso beharrezko gutxienezko arreta ere arautzen du.*

*Animaliak aldi batez edukitzen dituzten establezimenduek bete beharreko arauak ezartzen ditu, bai eta albaitaritzako kontsultategi, klinika zein ospitaleen eta animalia saltokien ezaugarriak eta baldintzak ere.*

*Azkenik, ikuskapen eta zaintza neurriak zehazten ditu, arau-hausteak eta zigor aplikagarriak sailkatzen ditu eta prozedura zigortzaile egikaritzalea ezartzen du."*

2.- 1. Tituloa. 2. kapituluko. 3. artikuloa. 5.atala aldatzea:

*"5. Baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliak*

*Ordenantza honi dagokionez, eta segurtasun publikoari buruzko legerian xedaturikoa baztertu gabe, ondo hau hartuko da "baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliak": udal agintari eskudunek banaka halakotzat jo eta hala katalogaturiko txakurra. Horretarako irizpide objetibo batzuk hartuko dira kontuan, hala nola salaketarik jaso izana, portaera oldakor edo erasokorra agertu izana, edo pertsona eta/edo animalientzako arriskua agerian jartzen duen beste edozein inguruabar"*

3.- I. Titulua. 2. kapituluko. 3. artikulua. 6.atalaren azken paragrafoa aldatzea:

*“Horrelako animaliak edukitzea 101/2004 Dekretuaren bidez arautuko da.”*

4.- III. Titulua. IV. Kapituluua. 9. artikulua aldatzea:

*“Txakur jabe edo edukitzaileek derrigorrez identifikatu eta erroldatu beharko dituzte beren txakurrak, txakurra jai edo erosi den momentutik hilabeteko epean. Berdin egingo da bestelako edozein konpainiako animalia bada ere.*

*Animaliek beren zentsu identifikazioa eraman beharko dute beti nahitaez*

*Animalia ez erroldatzea, edo epez kanpo egitea, arau haustea izango da animalia babesteari buruzko Legearen 27.1.a artikuluan xedatutakoari jarraituz”*

5.- III. Titulua. IV. Kapituluua. 10. artikulua aldatzea:

*“Identifikaziorako txakurrari lepoaren ezker aldean mikrotxipa edo osagai elektronikoa bat jarriko zaio. Mikrotxip hori albitari ofizial batek edo horretarako gaitua dagoen albitari pribatu batek jarriko dio.*

*Inplantazio hori Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1993ko maiatzaren 5eko Aginduan ezarritakoari jarraituz egingo da, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan animaliak identifikatzeko metodo elektrikoaren erabilera eta ezar litekeen beste edozein arautan xedatutakoa erregulatzen den (101/2004 dekretuan xedatzen den moduan)”*

6.- III. Titulua. IV. Kapituluua. 11. artikulua azken paragrafoa kentzea eta testua honela uztea:

*“Udalaren ardura da Hernaniko udalbarutian txakurren errolda egitea eta kudeatzea. Errolda horretan erregistraturik egongo dira udalbarutian bizi diren txakur-jabe edo edukitzaileen txakur guztiak eta baita udalerrian erroldaturik egon gabe ere udalerrian barrena ibili ohi direnak.*

*Errolda horretan, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (AIEO) haiek identifikatzeko jasota dauden datuez gain animalia edukitzeagatik izenpetutako erantzukizun zibileko aseguruari buruzko datuak ere jaso beharko dira*

*Udala datu-basea urtero eguneratua edukitzeaz eta datuen ezkutukotasunaz arduratuko da.”*

7.- III. Titulua. IV. Kapituluua. 12. artikulua lehen pasarte aldatzea:

*“Animalia identifikatzerakoan, albitari gaitu jarduleak Txakurraren Kartilla Ofiziala eta animalia identifikaziorako agiri bat beteko ditu. Agiri horren bidez, batetik, identifikatu*

*egingo da txakurra; eta bestetik, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren 1993ko maiatzaren 5eko Aginduaren ondorioz sortutako EAEko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (AIEO) animalia erregistratzeko eskaria egingo da."*

8- III. Titulua. IV. Kapituluua. 16. artikulua aldatzea:

*"Animaliaren jabeak ordainduko ditu identifikazioa, Txakurraren Kartilla Ofiziala eta erroldan izena ematea".*

9.- III. Titulua. IV. Kapituluua. 18. artikulua aldatzea:

*"Baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliak" moduan sailkaturiko txakurren kasuan, derrigorrezkoa da hala sailkatua dagoela agertzea Txakurren Kartilla Ofizialean eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Animalien Identifikazio Elektronikoko Erregistro Orokorrean*

*Animalia horiek "Baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliak" gisa sailkatuta daudela adierazten duen plaka eraman beharko dute beti lepotik zintzilik, ondo ikusten dela"*

10.- III. Titulua. VI. Kapituluua. 25. artikulua aldatzea:

*"Baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliak" eta "arriskutsuak izan daitezkeen animalia" gisa sailkatutako animalien kasuan, jabeek, hazleek edo edukitzaileek, aipaturiko baldintza orokorrez gain eta herri segurtasunari buruzko legerian xedaturikoez gain, ondoko baldintza berezi hauek bete behar dituzte:*

- a) *Txakurra dagoen leku edo esparrua segurtasun sistema egokiaz hornitu behar da animaliak ihes egitea eragozteko edo haurrek bertara erraztasunez sar ez daitezen, auzokoentzat, kaletik pasatzen direnentzat edo gainerako animalientzat inolako arriskurik ez dagoela bermatzeko.*
- b) *Debekaturik dago animalia lotzeko luza daitezkeen uhalak erabiltzea.*
- c) *Bide publikoetan, eraikin kolektiboetako guztien erabilerarako zatietan eta, oro har, leku publikoetan, derrigorrezkoa da txakurrak une guztietan muturrekoa eramatea, bakoitzaren tipologia kontutan hartuta egokia duena.*
- d) *"Baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliak" katalogaturik dauden txakurrek hori adierazten duen identifikazio plaka bat eraman behar dute, betiere agerian eta idunekotik loturik, araututako modelokoa.*
- e) *"Baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliak" katalogaturik dauden txakurrek ezin dute inola ere parte hartu txakur erakusketa, lehiaketa edo bestelako gertakizunetan.*

11.- III. Titulua. VI. Kapituluua. 30. artikulua aldatzea:

“Debekatua dago txakur-gorozkiak bide eta plaza publikoetan, haur parkeetan, lorategietan, eta oro har, apaindurarako eta/edo pertsonen pasadizorako den edozein lekutan uztea.

Horregatik, txakurrekin doazen pertsonak gorozkiak jaso egin beharko dituzte eta hurbilen duten errefusaren ontzi grisean utzi.

Txakurrak gorotzak bide eta plaza publikoetan, haur parkeetan, lorategietan, eta oro har, apaindurarako eta/edo pertsonen pasadizorako den edozein lekutan uzten badu, txakur-jabeak edo hartaz baliatzen ari dena izango da txakurrak sortzen dituen kalte, galera eta arazoaren erantzule, Kode Zibilararen 1905. artikulua xedatzen duen moduan; baita txakurrak alde egiten badio ere.

Horregatik, txakurrak kaka egiten badu kalean, momentu horretan berarekin doan pertsonak gorotza jaso eta gertuen aurkitzen duen errefusaren ontzi grisean utzi.

Txakur batek bide publikoa zikintzen badu, herritarrek eskubidea izango dute txakur-jabeari edo eramaileari zikindutakoa garbi dezala eskatzeko.”

12.- V Titulua. XII. Kapituluua. 55. artikuluan ondorengo aldaketak egitea:

*Ordenantza honi jarraituz, arau-hausteak arin, larri eta oso larrietan sailkatuko dira, osasunerako dituzten arriskuak, arduragabekeria maila, sortutako kaltearen larritasuna eta berriro egin ote diren kontuan izanda.*

A. *Arau-hauste arinak izango dira:*

- *Errolda identifikaziorik gabeko konpainiako animaliak edukitzea, identifikatuta egotea derrigorrezkoa bada.*
- *Animaliak garraiatzea Lege eta Erregelamenduetan ezarritakoa bete gabe.*
- *Animaliak ondo zaindu eta begiratu ezin diren lekuetan edukitzea.*
- *Ordenantza honetan zein bestelako lege eta araudietan xedatutako betebeharrak eta debekuak ez betetzea, egin den arau-haustearen izaera dela eta bestelako kalifikazioaren bat duen kasuetan izan ezik.*
- *Animaliak sortaraz ditzakeen kalteetarako erantzukizun zibileko aseguru ez izatea.*
- *“AIEOari zentsurako identifikazioaren berri edota, 101/2004 Dekretuko 3. artikuluan jasotakoaren arabera, txakurren zentsuko identifikazioan izandako aldaketak ez jakinaraztea”*

- *Aurkeztutako albaitari-ziurtagiria edo/eta ziurtagirian jasotako datuak gezurrezkoak izatea.*
- *Ordenantza honetan zein bestelako lege eta araudietan xedatutako bete behar eta debekuak ez betetzea, egin den arau-haustearen izaera dela eta bestelako kalifikazioen bat duen kasuetan izan ezik*
- *Animaliei tratu iraingarria ematea edo haien izaerari ez dagozkion jokaerak edo jarrerak edukiaraztea*

*B. Arau-hauste larriak izango dira:*

- *Animalien gorozkiak bide zein plaza publikoetan, haur parkeetan, lorategietan, leku apaingarrietan eta pertsonak ibiltzeko lekuetan uztea.*
- *Garbitasun eta osasun egoeraren aldetik egokiak ez diren lekuetan animaliak edukitzea, janaririk eta beharrezko osasun asistentziarik gabe.*
- *Animaliak antzutea, gorputz atalen bat moztea eta akabatzea albaitariaren kontrolik gabe edo legeek zein araudiek ezarritako baldintza eta eskakizunetan ezarritakoaren kontra.*
- *Ez txertatzea eta derrigorrez eman beharreko tratamenduak ez ematea.*
- *Animaliak baimenik gabe saltzea.*
- *Ordenantza honen ezarpen eremuan dauden animaliak aldi batean edukitzea, hazi edo saltzea, Legeek zein Araudiek ezarritako baldintza eta eskakizunak bete gabe.*
- *Animaliei tratu txarrak ematea, alferrik sufriaraziz, zaurituz edo gorputz atalen bat moztuz.*
- *Animaliei alferrikako sufrimendua eta kalteak eragiten dizkieten substantziak ematea zuzenean zein janariaren bitartez.*
- *Kalteak eragin ditzaketen animaliak behar bezala ez zaintzea eta behatzea.*
- *Animaliak min larriak eta nabarmenak dituela jakin eta albaitaritza asistentzia egokirik ez ematea.*
- 
- *Administrazio-baimenik ez duten ikuskizunetan animaliak erabiltzea.*



- *Baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliak edo animalia arriskugarri bat solte lagatzea edo bere ihesa edo galbidea ekiditeko beharrezko neurriak hartu ez izana.*

*Baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliak edo animalia arriskugarria identifikatzeko bete beharra ez betetzea.*

*Baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliak edo animalia arriskugarritzat katalogatutakoa leku publikoetan muturrekorik gabe edo katearekin nahiz uhal ez luzagarriarekin lotua ez ematea.*

*Arautegi honetan edo ezartzen den beste legerian zehazten diren bete beharreko funtzioen arabera, agintari eskudunak edo agenteak eskatutako informazioa ez ematea, informazio emateari aurka egitea, zehaztugabeko informazioa edo informazio faltsua ematea.*

*Zigor espedientea hasi aurreko bi urteetan zehar hiru arau-hauste arin egin izana, baldin eta zigorra ezarri bazaio erabaki irmo bidez.*

#### *C. Arau-hauste oso larriak dira:*

- *Jabeak txakurtegian jasota dauden animalien ardura hartu nahi ez izatea, nahiz eta jabea identifikatua egon.*
- *Animaliak era bortitzen batean edo substantzia toxikoak emanda akabatzea.*
- *Konpainiako edo etxeko animaliak abandonatzea.*
- *Animalienganako krudelkeria, tratu txarrak edo animalien sufrimendua islatzen duten eszenak grabatzea.*
- *Baimendutako ikuskizunetan parte hartzen duten animaliei anestesia, drogak eta abar ematea, horien bidez haien berezko portaera guztiz kontrako bihurtu ahal izateko.*
- *Pozoitutako janaria lagatzea bide eta espazio publikoetan.*
- *Animaliak debekatutako ikuskizun publikoetan erabiltzea.*
- *Baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko edozein motatako animalia edo arriskugarria den animalia abandonatzea. Jaberik ez duena, helbide ezagunik ez duena, datuak ezagutzeko identifikazio sistemarik ez duena eta erroldatua ez dagoen animalia abandonatutzat hartuko da. Baita ere, abandonatutzat joko da, nahiz eta erroldatuta egon, bere desagertzea arautegiak ezartzen dituen epeetan salatu ez dena edo bide publikotik jaberik gabe dabilena.*

- *Gaitasun ziurtagiria ez duen pertsonak arriskutsuak izan daitezkeen animaliak trebatzea.*
- *Arriskutsuak izan daitezkeen txakur edo animaliak baimenik gabe edukitzea.*
- *Lizentzia ez duen norbaiti arriskutsua izan daitekeen txakur edo animalia saltzea edo transmititzea.*
- *Animaliak bere oldarkortasuna areagotzeko edo debekatuta dauden ekintzetarako trebatzea.*
- *Animalien oldarkortasuna frogatu nahian baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animalia edo animalia arriskugarriekin lehiaketak, ariketak, erakusketak eta ikuskizunak antolatzea, egitea edo bertan parte hartzea*
- *Zigor espedientea hasi aurreko bi urteetan hiru arau-hauste larri egitea, atzera bota ezineko erabakiaren bidez ordaindu beharreko zigorrarekin.*
- Zakur-arraza arriskutsuak haztea edo nahastea

13.- V Titulua. XIII. Kapituluua. 56. artikulua. 3. puntua aldatzea:

*“Arau haustea egin duenak, egindako arau haustearengatik jarriko zaion zigorraz gain, arau hauste horrengatik udalari sortzen zaizkion gastu guztiak ere ordaindu beharko ditu”*

14.- V Titulua. XIV. Kapituluua. 61. artikulua.3 aldatzea:

Zigortzeko ahalmena izateko, ezinbestekoa izango da zigor-espedienteari ekitea, horretarako legeak edo bestelako arautegiek ezarritako bideei jarraituz.

Animalien babeserako 6/93 Legean araupetutako organo administratiboen eskuduntza zigortzailearen kalterik gabe, espediente zigortzaileak, Udalak, bideratuko ditu, eta arau-haustea oso larriak direnean, eskuduntza duen Foru Organoari helaraziko dizkio. Horrek jarritako isunak udalaren diru kutxetan sartuko dira.

Arau-hauste arinak zigortzeko eskumenak alkateak izango du eta, larriak zigortzekoarena Osoko bilkurak.

Ordenantza honetako edozein zigor-ezartzek ez du esan nahi zigortua erantzukizun zibiletik salbuetsia geratzen denik.

Arau-hausteak delitu edo falta izaera baldin badu, gertatuen berri epaitegiari emango zaio eta Administrazio Organoak ez du aktuaziorik egingo.

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, 30 egunez, interesa duen edonork beharrezko ikusten dituen erreklamazio, alegazio eta oharra egin ditzan.

3.- Epe horretan erreklamazio, alegazio edo oharrik egiten ez bada, behin betiko onartu dela ulertuko da eta GAOn argitaratzeari ekingo zaio

**10.- ANIMALIAK EDUKITZEA ETA BABESTEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN 61. ARTIKULUAN ARAUTUTAKO ZIGORTZEKO AHALMENA ESKUORDETZEA.** - Udal Gobernu Taldearen eta Ingurumeneko Teknikariak, Udalbatzarrak, "Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal Ordenantza"-ren baitan eta aplikagarri zaion bestelako araudiaren baitan duen, zigor larriak ezartzeko eskumena, Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetzeko proposamena egin dute, zehapen prozedura azkartzeko helburuarekin.

Funtzio hauek deskonzentratuak izan daitezke, 1398/1993 Errege Dekretuaren 10. artikulua eta 2568/1986 Errege Dekretuaren 51.1 eta 114.1 artikuluek diotena ikusirik.

Ondare eta Kontratazio Teknikariaren txostena juridikoa ikusirik, Udalbatzarrak honako erabakia hartzea

Aztertu da Zerbitzu Publiko eta Merkataritza Batzordeak 2012ko otsailaren 22an emandako irizpena.

Esandakoa kontuan hartuta, Alkate jaunak irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

\* Aldeko botoak: 11 (9 BILDU, 1 EAJ-PNV, 1 H1!).

\* Kontrako botoak: Bat ere ez.

\* Abstentzioak: 3 (EUSKAL SOZIALISTAK).

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

1.- "Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal Ordenantza"-ren arau-hauste larrien zigortzeko ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetzea.

2.- Eskuordetzea mugagabea da eta, onartua izanez gero, akordio hau hartzen den egunean hasi eta bukatu berriz, akordioa ezesten denean, Legegintzaldia bukatzen denean edo uko egiteko idazkia aurkezten denean bukatuko da.

3.- Udalbatzarrak edozein momentutan beren-ganatu ahal izango du eskuordetutako ahalmena.

4.- Eskuordetutako ahalmen bidez hartutako akordio guztiek, espresuki jasoko dute zirkunstantzia hau.

5.- Akordio hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agitatzea eta iragarki taulan.

6.- Tokiko Gobernu Batzarrari akordio honen berri ematea.

Andoni Amonarraiz:

Batzorderen batetan, Zerbitzuetako batzordean jakinaraziko dira zigorrak, arazorik izan den edo ez?

Luis Intxauspe:

Bai.

#### **11.- UDALAK BIC GIPUZKOA BERRILAN SA-N IZANGO DUEN ORDEZKARIA IZENDATZEA.**

Luis Intxauspe:

Berez Hernaniko Udala BIC Gipuzkoa Berrilanekeo bazkidea da, nahiz eta gaur egun parterik ez duen hartzen, orduan harremanetan egon gara beraiekin, bisitatu ditugu, ikusi dugu ze lan egiten duten eta iruditzen zaigu momentu honetan interesgarria izan daitekeela Hernaniko Udalarentzat, Hernaniko herriarentzat hor parte hartzea, enpresa berriak edo gazteei enpresak sortzeko lan bat egiten da, eta momentu honetan interesgarria iruditzen zaigu horrelako elkarlanean aritzea, edo hor parte hartzea, holako dinaminak bultzatzen saiatzea.

Bilduren aldetik proposamena da Hernaniko Udaleko ordezkaria Aitor Miner izatea, eta badaezpada ordezeko moduan Kistiñe Lujanbio.

Esandakoa kontuan hartuta, Alkate jaunak irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

\* Aldeko botoak: 9 (BILDU).

\* Kontrako botoak: Bat ere ez.

\* Abstentzioak: 5 (3 EUSKAL SOZIALISTAK, 1 EAJ-PNV, 1 H1!).

Bozketaren emaitza ikusita, honako hauek izendatu dira udalaren ordezkari:

Aitor Miner Aguinaga – BILDU (Ordezkaria: Kistiñe Lujanbio Galdeano – BILDU).

#### **12.- MARTXOAK 8KO ADIERAZPENA.**

Bilduren mozioa:

##### *MARTXOAK 8KO ADIERAZPENA*

Martxoak 8, Emakumeen nazioarteko Eguna hurbil daukagun honetan, \_\_\_\_\_ Udalak gizon eta emakumeen arteko benetako aukera-berdintasuna lortzeko lanean aritzeko dugun konpromisoa berretsi nahi dugu.

Aldaketa garaia bizi dugun Euskal Herrian. Aldaketa politiko eta soziala gauzatzeko garaia. Emakumeak aldaketa horren subjektuak izan daitezen politika feminista garatzea ezinbesteko konpromisoa da.

#### \_\_\_\_\_ UDALAK BULTZATUKO DUEN POLITIKA FEMINISTAK HONAKO HAU KONTUAN IZAGO DUTE:

Emakumeek jasaten dugun zapalkuntza egiturazkoa da. Hau da, jendartearen egituraren emaitza da eta antolaketa ekonomikoan, politikoan eta ideologikoan uztartuta dago. Egiturazkoa da patriarkatua erabat errotuta dagoelako gure jendartean eta antolaketa eredu hori sistema kapitalistaren ezinbesteko zutabea delako.

Udaletan garatu nahi dugun Politika Feministak estrukturala den arazo bati erantzun nahi dionez, ezinbestean politika integrala izan behar du emakumeen bizitzaren arlo guztietan eragin behar duelako.

Politika feministak emakumeon eskubideak oinarrituko da. Beste herri eredu baten eraikuntza dugu helburu. Hau da, gizon eta emakumeen arteko harreman eredu berri bat eraiki nahi dugu.

Politika feministak emakumeen gidaritzat eta parte hartzeat bilatuko du. Politika honen definizioa mugimendu feminista eta emakume taldeekin egin behar da. Hauen parte hartzeak politika feminista erreala definitzea ahalbideratuko du.

Espezifikoki landuz baina zeharkakotasuna ahaztu gabe martxan jartzen ari garen proiektua oinarri feministetan egituratuko dugu eta gure herrian sortzen ditugun politika guztietan ikuspegi feminista kontuan izango dugu

Bukatzeko .... Udalak mugimendu feministak antolatuko dituen ekimen guztietara joateko deia luzatu nahi die herritar guztiei.

Asko dugu egiteko eta asko dugu ikasteko. Politika feminista gure herrian murrizten ari garen aldaketa politiko eta sozialaren izarra bihurtu behar dugu.

EAJren mozioa:

#### MARTXOAREN 8KO ADIERAZPENA, EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

1975 urtean Nazio Batuetako Batzar Nagusiak martxoaren 8 a Emakumeen Nazioarteko Egun izendatu zuen, mugimendu feministek eta elkarteek, indar publiko, gizarte eragile askok eta askok eta herritarrek orokorrean, gure gizartean gizon eta emakumeen arteko berdintasunean eginiko lana aitortu nahian.

Hala ere, gizon eta emakumeen aldetik, eskubideak, boterea eta baliabide eta onurak lortzeko orduan, aritzeko orduan eta kontrol eraginkorra egiterakoan, desberdintasun garrantzitsuak mantentzen dituen gizarte batean bizi gara. Txirotasun eta gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen %82,9a emakumeak dira. Emakumeek egunean 2 ordu eta 23 minutu gehiago ematen dituzte egunero etxeko lanetan, haur eta heldu, pertsona gaixo edo eta menpekotasun bat dutenen zaintzan. Eta gizon eta emakumeen urteko soldatan 7.000 eurotako aldea dago.

Beraz, berdintasuna oraindik lortzeke daukagunez bere konplexutasun osoan heldu beharreko zeregina izaten jarraitzen du.

Gizon eta emakumeen egiazko erantzunkidetasunak bakarrik orekatuko ditu benetan emakumeentzako aukerak. Erantzunkidetasuna pribatua eta enpoderamentua publikoan dira pentsamendu matxistak baldintzatuz dituen gizarte egiturak baikorki astinduko dituen instrumentuak.

Beharrezkoa da berdintasunean aurrera egin nahi badugu, emakumeek lana izateko, ordainsari berdina lortzeko, gizon eta emakumeen arteko erantzunkidetasuna eta lana eta familia uztartzeko, ezarritako neurriekin jarraitzea. Zilegi delako baina baita eraginkorra delako ere.

Guzti hau kontutan izanik ..... udalak:

1. 1. Gizon eta emakumeen arteko egiazko berdintasuna ematen den gizartea lortzeko bidean, martxoaren 8<sup>a</sup>, EMAKUNEAREN EGUNA, ospatzeko antolatzen diren ekintza eta ekimenetan parte hartzera animatzen du euskal gizartea.
2. 2. Erabakiak hartzeko guneetan parte hartzearen areagotzea eta giza nahiz ekonomia ongizatea lortzen lagunduko dien, gizabanako nahiz emakume kolektiboak honen garrantziaz jabetzeko bidean, emakumeen enpoderamendu prozedura hauek bultzatzen jarraitzeko konpromisoa berresten du.
3. 3. Hala, herri mailako berdintasun politikak egiteko, herritarren eta udal erakundeen arteko zubiak eraikitzeko konpromisoa adierazten du.
4. 4. Eusko Jaurlaritzak eta Emakunderi premiaz eskatzen die, jarrai dezaten emakume eta gizonen arteko erantzunkidetasuna bultzatzen, honela, gizon eta emakumeen lan bizitzaren, gai publikoetan parte hartzearen eta norbanakoaren bizitza pertsonalaren garapenean berdintasuna lortzeko bidean laguntzen baita.
5. 5. Azkenik, Euskal Gizarte guztiari, gizon eta emakume guztiei eskatzen dio, guztion konpromisoa, gizarte demokratikoago eta justuago bat eraiki dezagula, berdinen gizartea.

Esandakoa kontuan hartuta, Alkate jaunak irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

Bilduko mozioa:

- \* Aldeko botoak: 9 (BILDU).
- \* Kontrako botoak: 2 (EAJ-PNV, 1 H1!).
- \* Abstentzioak: 3 (EUSKAL SOZIALISTAK).

EAJ-PNVko mozioa:

- \* Aldeko botoak: 3 (EUSKAL SOZIALISTAK 2 (EAJ-PNV, 1 H1!).
- \* Kontrako botoak: 9 (BILDU).
- \* Abstentzioak: 3 (EUSKAL SOZIALISTAK).

Botoak ikusita, BILDUK aurkeztutako mozia onartzen da.

Andoni Amonarraiz:

Jarrerak hurbiltzea gustatu izango litzadake batzorde batetan, ideia berbera da, jarrerak baino kontzeptuak hurbiltzea litzateke, guk beste bat dugu, pena da saiatu ez izana edo ezin bateratu izana, edo testu bakarra landu ez izana, ia hurrengoan zer egin daitekeen. Puntuak irakurriko ditut soilik:

Luis Intxauspe:

Nahiz eta egia esan azkenengo momentuan ibili gara idatzi honekin eta lehenagotik ez dugula eztabaidatu, zenbait kontzeptutan ez adostasunak ditugu, eta ziurrenik zaila litzateke adostea, zenbait jarrera kontzeptuetan eta terminoetan ziurrenik.

Andoni Amonarraiz:

Baina zerbait aurkitzeko lan egin genezake ez? Ziur gauza zailagoak egitera irits daitekeela.

Luis Intxauspe:

Hurrengoan saiatu beharko gara, denok lehenago mugitu beharko gara adierazpen bateratu bat egiteko.

Jose Ramón Chica:

Esan nahi nuke azken bederatzi edo hamar urtetan lehenengo urtea dela udalak martxoaren 8rako adierazpen bateratua ez duena ateratzen.

### **13.- PSE-Eeren MOZIOA: JAIO BERRIEN BIDEGABEKO JABETZE EDOTA ADOPZIO IRREGULARREI BURUZKOA .**

-

Hernaniko Udaletxeko Euskal Sozialistak Udal Taldeko bozermaileak, Estefanía Morcillok Jn/And, hurrengoko MOZIOA aurkezten du OSOKO BILKURAN, JAIOBERRIEN BIDEGABEKO JABETZE EDOTA ADOPZIO IRREGULARREN HIPOTESIARI BURUZ

#### **AZALPENA**

50 hamarkada eta 1990 urte arte, Euskadiko erkidegoan eta Estatu Espainol guztian irregularitate administratiboak egon ziren eta horren ondorioz badaude susmoak jaiotze berrien bidegabeko jabetze edota adopzio irregularren inguruan. Diktadura frankistan, familia asko eta askok pobrezan, analfabetsimoan, informazio ezan eta eskubide gabeziaren ondorioz batzuek aktibitate honekin hasi ziren

Errepresioaz aprobeztatu ziren pertsonak, lapurketa trama eta jaiotze berrien saltze hau antolatzeke, urteak aurrera egin ahala jarraitu egin zuten euren boterea erabiliz eta hala euren delituekin jarraitzeke aukera izan zuten.

Dirudienez, bazeuden umeen bidegabeko trafiko honetan bide egonkorrak. Bat, Madrid-Valentzia eta beste Iparraldetik lan egiten zuena, Euskaditik eta Nafarroatik, Valentzia eta Saguntoko Ama Eskoletara eramaten zituzten. Euskadin dauden bi kalteatuen asoziazioak, SOS Bebés Robados eta Anadir, Euskadin, 400 kasu baino gehiago baieztatu dituzte. Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak, 200 kasu tramitatzen ari da jai berrien lapurketaren inguruan, 121 kasu Gipuzkoakoak dira, 48-64 bitartean, Bizkaikoak eta 31 Arabakoak. Gipuzkoa da, hain zuzen ere, Estatu mailan, kalteatu gehien dituen.

SOS Bebés Robados eta Anadirrek euskal erakundeekin harremanak izan dituzte jakinarazteko euren egoera, kezkak eta eskaerak.

2011ko irailean, Gipuzkoako Batzar Orokorretan Berdintasun, Giza Eskubideen eta Memoria Historikoaren Batzarrean agertu ziren eta bertan euren eskaerak jakinarazi zituzten, euren ikerketentzako laguntza eskatuz eta jai berrien lapurketa salatuz.

Asoziazio hauek eta kalteatuak, erakundeei eskatzen diete egia jakitzeko duten eskubidea, euren desagertuen egoera jakin nahi dutela, autoritateen, bai lokalki, herrialdekoak edota erkidegoan dauden obligazio politiko bat delako, eta noski estatukoak ere. Horregatik, Euskal Sozialistak Udal Taldeak hurrengoko

MOZIOA aurkezten du:

LEHENA.- Hernaniko Udaletxeak asoziazio eta kalteatuen eskaerarekin bat egiten du, eta bereziki, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Estatuko Gobernuari eskatzen dio, behar diren neurriak eta euren esku daudenak hartzeko, asoziazio eta kalteatuak egia ezagutarazko eskubidea bermatzeko.

BIGARRENA.- Hernaniko Udaletxeak, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio, Memoria Historikoaren Zuzendaritzari bereziki, Gipuzkoako Diputatu Orokorren Kabinetearen barne dagoena, asoziazio eta kalteatu hauekin hitzarmen bat sinatzeko laguntza ekonomikoa izan dezaten, eurekin lan egin dokumentazioa eskuratzeko, atentzio psikologikoa izateko, laguntza legala eta beste laguntza eta subentzioak euren ikerketak eta salaketak aurrera eraman ahal izateko.

HIRUGARRENA.- Hernaniko Udaletxeak erakunde parlamentarioei eskatzen die, -Gipuzkoako Batzar Orokorretara, Eusko Legebiltzarrerara eta Kongresura-, Ikerketa Batzorde bat egitea, Gipuzkoako jai berrien lapurketen kasuan egia jakinarazi arte.

LAUGARREN.- Hernaniko Udaletxeak, ospital publiko eta pribatuen kolaborazioa eskatzen du, umeen lapurketa kasuan inplikatuak daudenak eta Eleiza Katolikoari, Donostiako Apezpikutzara bereziki, asoziazio eta kalteatuei laguntzeko behar duten informazioa eta dokumentazioa eskuratu ahal izateko, bere lorbidea erraztuz.

BOSTGARREN.- Hernaniko Udaletxeak, Estatuko Fiskal Orokorrari eskatzen dio instruzio bat agintzea, Fiskaltzei aginduz prozesu judizialak zabaltzea sustatzen eta erraztea eta behar diren ikerketak jai berrien lapurketen salaketen inguruan.

SEIGARREN.- Hernaniko Udaletxeak kolaboratuko du asoziazio eta kalteatuekin, bere arduraren barne eta gainera bere elkertasuna eta hurbiltasuna adieraziz.

Mozioa aho batez onartu da.



#### 14.- ESKAERA ETA GALDERAK.

Andoni Amonarraiz:

Uste dut plenorik onena izan dela, agiriak euskeraz zein gazteleraz jasotzeari dagokionez, ez epei dagokionez, baina agiriak iritea lortu dugu behintzat; itzultzailea traba ez dadin eskatuko nuke, epean iritis ahal izateko, komenigarria litzateke batzorde bakoitzeko idazkaria plenora datozen irizpenak egin bezain laster itzultzaileari pasatzea, hau antolatu dadin, eta plenoko egunerako bi kontzeptuak eman daitezen, plenora forman eta epean iritsiaz.

Jose Ramon Chica:

Gogoratuko duzu azaroko plenoan galdera batzu planteatu nituela eta beste batzu idatziz erantzuteko, oraindik ez zait erantzunik eman.

Luis Intxauspe:

Horretan ari gara.

Estefanía Morcillo:

Atez ate eta Garbitaniak suposatzen duten gastuen datuak eskatzen ditugu berriro ere.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 19:45 orduetan bilera bukatutzat eman da eta nik, idazkariordea naizenez, ziurtatu dut.